



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Ana Gabriella Schwedhelm sopranoak eta Rubén Fernández Aguirre pianistak Alma Mahler aldarrikatzen dute eta Gustav Mahler gogora ekartzen dute, bien arteko gutunetan jorratzen diren konposizioen bidez

- Jatorri mexikar eta arbaso alemaniarrak dituen abeslari ezagunak emanaldia egingo du Arriaga Antzokiko foyerrean datorren asteartean, urtarrilaren 25ean, 19:30ean, Fdez. Aguirre maisuak lagunduta.
- Sandra Fdez. Aguirre aktoreak ere parte hartuko du kontzertuan, errezitazaile gisa.

Bilbon, 2022ko urtarrilaren 22an. Arriaga Antzokiko foyerrean kontzertu oso berezia egongo da datorren asteartean, urtarrilaren 25ean (19:30ean), **Ana Gabriella Schwedhelm** jatorri mexikarra eta arbaso alemaniarrak dituen soprano bikainaren eskutik, **Rubén Fdez. Aguirre** maisuak pianoan lagunduta. Errezital horretan, bikoteak Alma eta Gustav Mahlerren konposizioen aukeraketa bat interpretatuko du, alegia, elkarri idatzitako gutunetan agertzen zen musika izango da entzungai. Izan ere, horietan, besteak beste, bai batak zein besteak landutako obrei buruz, konposatzen ari ziren musika eta abarrei buruz hitzegiten zuten.

Errezitalean **Sandra Fdez. Aguirre** aktoreak ere parte hartuko du, errezitazaile gisa, eta Schwedhelmek eta Fdez. Aguirrek bi konpositoreen irudiak azpimarratuko dituzte. Alde batetik, programak **Alma Mahler** (Alma Schindler ezkondu aurretik) konpositore bikaina aldarrikatzen du, haren lanek hala izan zela frogatzen duten arren, senarraren itzaletan bizi izan baitzen eta, ziur aski, ezin izan baitzuen bere ahalmen artistiko guztia garatu. Bestetik, errepertorioak **Gustav Mahlerren** aitortza egiten du, XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako Europako konpositore eta zuzendari handietako bat, musikaren historian erreferentzia izan dena.

Kontzertu honen ezaugarri berezia da programarako hautatutako errepertorioa Alma eta Gustav Mahlerrek elkarri bidalitako gutunetan nolabait aipatutako abestiek osatzen dutela. Izan ere, elkarrekin ez zeudenean elkarri idazten zizkioten gutunetan konposatzen ari ziren musikaz hitz egiten baitzuten, prestatzen ari ziren abestien zikloez, beren musikan jorratzea bururatzen zitzaizkien gaiez eta, zalantzarik gabe, bi artisten musikari buruzko informazio interesgarria eskaintzen duten beste xehetasun

batzuez. Azken batean, ikusleek Almaren zein Gustav Mahlerren abestiak entzungo dituzte, hein batean bie lotuta daudenak, beren korrespondentziaren bidez. Era berean, gutunek beraiek ere garrantzia izango dute, Sandra Fdez. Aguirrek errezitatuko dituen testuei esker.

Alma eta Gustav, testuingurua

Vienan 1902an. Orduan 22 urte zeuzkan Alma Schindler, haurdun zegoela, bera baino 19 urte zaharragoa zen Gustav Mahlerrekin ezkondu zen, gorteko operako (Hopfer) goi-mailako zuzendaria. Emakumeak gizona miresten bazuen ere, bere musikak ez zuen liluratzen (beranduagoko salbuespena izan ezik, «Das Lied von der Erde» eta 6 eta 7. sinfoniak). Gustav Mahlerrek Andrea biziki maitatu arren, konposatzeari uzteko baldintzapean ezkondu zen: «nire musikarako biziko zara, eta ez zure musikarako». Harremanak Gustav zendu arte iraun zuen, 1911 arte hain zuzen ere. Almak elkarri igorritako gutunen zati bat suntsitu eta beste zati bat berridatzi edo aldatu zuen. Baliteke Europako XX. mendeko pertsonaia aipagarri hauen arteko benetako istorioa bere abestietan baino ez egotea.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus